

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

2017-2018 ikasturtean euskara ikasteko udalaren bigarren laguntza deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 413185

Euskara ikasteko laguntzak arautzen dituzten eta indarrean duaden oinarrietan (ALHAO: 78. zk., 2017ko uztailaren 5a) aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta 1. deialdiko aurrekontu kreditu guztia agortu ez denez gero, Honen bidez, 2018. urteko bigarren deialdia egiten da, 2017-2018 ikasturtean, 2017ko urriaren 1a eta 2018ko ekainaren 30a bitartean, egindako eskola jardueretarako.

Lehen. Onuradunak

Ordenantza honetan ezarritako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte Lapuebla de Labarcako udalerrian erroldatutako pertsona fisiko guztiek, betetzen badituzte honako baldintza hauek eta laugarren oinarrian ezarritakoak:

Lapuebla de Labarcako udalerrian erroldaturik egotea diru-laguntza eskatzen den ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez eta etengabe.

16 urte baino gehiago edukitzea.

Edozein euskara ikastegitan matrikulatuta egotea 2017-2018 ikasturtean (2017ko urritik 2018ko ekainera arte) lehenengo oinarri arauak zehaztutako edozein ikastaro motatan.

Ezin dira onuradun izan diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2. artikuluan zehazten dituen egoeretako batean dauden pertsona fisiko nahiz entitateak.

Ezingo dira onuradun izan laguntza jasotzeko konputatzen den aldia hasten denean nahitaez eskolaratu beharreko adina duten pertsona fisikoak, eskolaratuta egon zein ez egon.

Egunean eduki behar dira Lapuebla de Labarcako Udalaren diru kutxei egin beharreko ordainketak, eta beteta Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Ekitaldi honetako lehenengo deialdian onuradun izan direnak ezingo dira onuradun izan oraingoan.

Bigarrena. Xedea

Euskara ikastaroetako matrikula gastuak ordaintzeko udalaren diru-laguntzak, hizkuntza horren ezagutza handitzeko eta erabilera normalizatzeko asmoz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Hasierako onarpena eman zitzaion 2017ko apirilaren 20ko osoko erabakiaren bidez, eta behin betiko argitalpena ALHAOren 76. zenbakian egin zen, 2017ko uztailaren 5ean, ez baitzen haien kontrako alegaziorik aurkeztu eta, ondorioz, behin betiko onartu baitziren, 2017-2019rako Diru-laguntza Plan Estrategikoarekin bat etorritik (ALHAOn 2017ko maiatzaren 12an argitaratua).

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikasturteko matrikularen ehuneko 50 izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 15 eguneko epea egongo da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Azken eguna baliogabea baldin bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

Eskabideak, deialdi honetan zehazten den ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, Alkatetzari zuzenduta eta adierazitako agiriekin batera, Lapuebla de Labarcako Udalaren Erregistro Orokorrean (El Plano plaza 9), edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko b) letratik e) letrara arte adierazten diren tokietako edozeinetan.

Seigarrena. Aurrekontu partida

Gastua indarrean dagoen udal aurrekontuko 2018.335.480 partidari egotziko zaio, 1.440,00 euroko hornidurarekin. Onartutako eskaerek zenbateko hori gaindituz gero, egiaztatutako zenbatekoaren proportzioan murriztuko dira laguntzak.

Zazpigarrena. Instruktoea

Euskara arloko arduraduna izendatuko da instruktore.

Zortzigarrena. Eskaera eredia

..... jaunak/andreak (NANa/AIZ:),n matrikulatutako ikaslea denez, honen bidez, Lapuebla de Labarcako Udalak euskara ikastegi ofizial edo homologatutako matrikula gastuak (autoikaskuntza zentroak barne) finantzatzeko helburuz 2017-2018 ikasturterako egindako bigarren laguntza deialdia dela eta,

ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

Ez dagoela Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 13.2 artikuluan jasotako inolako egoeratan.

Egunean dagoela zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta berriazko baimena ematen diola Lapuebla de Labarcako Udalari informazio hori zuzenean administrazio eskudunetatik eskuratzeko.

Helburu bererako laguntza edo diru-laguntzarik jaso izana beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik: EZ.

BAI,k emanda, euroko zenbatekoaz.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DU:

Arauz izan daitekeen gehieneko laguntza, jatorrizko agiri hauek aurkeztuta, udalean konpultsatzeko:

Eskaera ofiziala.

Ikastegiaren ziurtagiria, ondoko hauek adierazten dituenak: ikaslearen identifikazio datuak, ikastaroaren kostua (irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak bereiziz, barnetegia izatekotan), egindako ikastaroa (maila eta eskola orduen kopurua adieraziz), hasiera eta bukaera egunak.

NANa edo AIZ

Xede bererako beste laguntza batzuk onartu edo jaso izanaren ziurtagiria, hala dagokionean.

Hirugarrenen fitxa, laguntza ordaintzea nahi den banketxearena.

Halaber, honako agiri osagarri hauek ere aurkezten ditu (ez da nahitaezkoa eskaera egiteko garaian).

Ikastaroko asistentzia mailaren ziurtagiria, ahal izanez gero, emandako ordu guztien gainean asistentzia orduen ehunekoa adieraziz.

Fakturak eta gainerako frogagiriak, merkataritza edo administrazio balioa dutenak.

Ordainketaren frogagiriak.

Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.

eta BAIMENA ematen dio Lapuebla de Labarca Udalari udal ogasunarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiriak eta errolda egiaztagiria eman ditzan.

Lapuebla de Labarca, 2018ko irailaren(a).

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALEKO ALKATEA

Bederatzigarrena Jakinaraz bekio Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari, deialdia erregistratzeko eta laburpena ALHAOn argitara emateko.

Lapuebla de Labarca, 2018ko abuztuaren 28a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO